# TRATU ONAK NAHIAGO

## Tratu onak edo tratu txarrak, zer nahiago?

Dinamika honetan tratu onak eta tratu txarrak bereiziko dituzte. Nola sentitzen gara gaizki tratatuak gaituztenean? Eta ondo tratatzen gaituztenean? Zer nahiago dugu?

Prestatuko dira txartel batzuk tratu onak edo txarrak agintzen dituztenak (ikus hurrengo orrian). Txartel horiek banatuko dira eta bakoitza tratatua izango da berak daraman txartelaren arabera.

Musika lasaia jarriko da, eta musika entzuten den bitartean, gelan ibiliko dira. Musika gelditzen denenean, ikasleak gelditu egingo dira. Ikasle bakoitzak txartela irakurriko dio ondoan edo parean dagoenari, eta hor agindutakoa egingo dio. Horrela egingo da denboratxo batean.

Ondoren, elkartuko dira antzeko aginduak dituztenak, hau da, tratu onak alde batean eta tratu txarrak bestaldean, eta kate moduko bat egingo dute, bata bestearen parean.

Behin bi kateak parez pare kokatuak daudela, bakoitzak bere txartela irakurriko du eta adibide bat jarriko du (eguneroko adibide bat). Bukaeran talde bakoitzak definitu beharko du zer diren tratu onak eta zer diren tratu txarrak. Definizio horiek gelan jarriko dituzte kartoi mehe batzuetan edo txartel handi batzuetan (ikus hurrengo orrian).

Ondoren, egindakoaren balorazioa egingo dute:

- ✓ Nola sentitu zarete?
- ✓ Zein katerekin sentitu zarete hobeto?
- ✓ Zein katetatik nahiago duzue besteak tratatu?
- ✓ Zein katetatik nahiago duzue tratatuak izan?
- ✓ Zer ondorio ateratzen dituzue joko honetatik?
- ✓ Konpromisoren bat hartuko zenukete?

**Txartelak egiteko proposamena**:

| | |
|---|---|
| MAITE NAZAZU | EZ IKUSIARENA EGIN |
| BEGIRA NAZAZU HARROPUTZ | AGURTU NAZAZU ERRESPETUZ |
| AHOLKA NAZAZU | ERAKUTS IEZADAZU |
| IBIL ZAITEZ TXUTXUMUTXUKA | NITAZ BARRE EGIN |
| LAGUNDU NAZAZU | BEGIRA IEZADAZU NAZKAZ |
| HURBILDU ZAITEZ NIREGANA | IZAN ZAITEZ ZAKARRA NIREKIN |

**Tratu onak** (definizioa):

**Tratu txarrak** (definizioa):